

KOSTUEN EGITURA


Kostuen egitura on bat edukitzea funtsezkoa da enpresa bat sortzeko. Kostuen egitura finko bat eduki gabe, enpresa ez litzateke aurrera aterako. Gure proiektu honetarako alderdi garrantzitsuenetako bat da.

Lehenik eta behin, gure zerbitzua sortu beharko dugu, eta ezinezkoa izango da bankuari eskatutako mailegua gabe, hortaz, gure ideiaren lehen pausoak emateko 100.000€-ko mailegua eskatuko dugu. Diru honekin aplikazioa sortzeko oinarriak egingo ditugu, hau da, programazioaren aldetik, lizentzien aldetik eta igoko diren tokietan (deskargatu ahal izateko), hala nola, “steamen”, “app storen” edota “play storen” diru kantitate handi bat gastatuko dugu. Diruaren beste kantitate handi bat iragarkietan joango da, mundu mailan ezaguna izateko iragarkiak egin beharko ditugu, eta iragarpen bat edozein webgunetan egoteko aukera izateko ordaindu egin behar da. Azkenik, beharko ditugun materieletarako eta lokalarako gastatuko dugu beste diru kantitate handi bat, baina diru hau gure poltsikotik jarriko dugu.

Beraz, 73.285€-ko inbertsioa egin beharko genuke aplikazioa sortzeko. Gure aplikazioa sortzeko 70.000€ behar dira gutxi gorabehera ezaugarri batzuk eduki behar dituelako bai ala bai; adibidez, aplikazioaren konplexutasuna, aplikazioaren funtzionalitatea, aplikazioaren diseinua, IA bat sortu, hainbat hizkuntza izatea, erabiltzaileen autentifikazioa, ordainketa moduak edukitzea, programazioa, analitikak (datuak aztertzea), administrazio panela edukitzea (aplikazioa erabiltzeko erraztasuna izan dezaten bezeroek), publizitatea edukitzea eta kostu gehigarriak. Beraz diru hori jarri beharko dugu aplikazioa soilik sortzeko. Horrez gain, beste material batzuetan 3.285€ jarri beharko ditugu, hala nola arbel zurian 30€, ordenagailuetan (5) 2.500€, mahaietan (5) 300€, aulkietan (5) 400€, arbel zurirako errotulagailuak (3 kaxa 6 koloretako) 15€ eta zaborrontzia 40€.

Hasierako inbertsia egin eta gero, hilabetero beste diru kantitate handi bat ordaindu beharko dugu, 22.540€. Diru hau hainbat gauzetan banatzen da, lehenik eta behin, publizitatean 7.500€ ordainduko ditugu, ondoren lokalean 90€ ordainduko ditugu, Uggasa enpresak 90€-ren truke lokal bat alokatzen du, alokailu honen barruan, ura, gasa eta argia datoz. Aplikazioa mantentzeko 4.000€ izango dira, eta gure soldatak 2.500€-koak izango dira. Ondoren, bankuari 300€ ordaindu beharko diogu hilabetero. Azkenik, seguruak ordaintzeko 650€ izango dira.

Laburbilduz, diru asko gastatu beharko dugu, baina aplikazio aurrera ateratzen den einean guztia ordaintzeko aurreikuspena dugu.



Aurreko orrialdean aipatutako kostu guztiak taula honetan txertatu ditugu ulermena errazteko.

Aplikazioa sortzea: - Aplikazioaren konplexutasuna - Aplikazioaren funtzionalitatea - Aplikazioaren diseinua - I.A. bat sortu - Hainbat hizkuntza izan - Erabiltzaileen autentifikazioa - Ordainketa moduak edukitzea - Programazioa - Publizitatea - Analitika (datuak aztertu)	70.000€
5 ordenagailu	$500 \times 5 = 2.500\text{€}$
5 mahaia	$60 \times 5 = 300\text{€}$
5 aulki	$80 \times 5 = 400\text{€}$
Arbel zuria	30€
3 arbelerako errotulagilu kaxa	$3 \times 5 = 15\text{€}$
Zaborrontzia	40€
Guztira:	73.285€

Kostu finkoak (hilabetero):

Publizitatea	7.500€
Lokala	90€
Aplikazioa mantendu	4.000€
Soldatak	$2.500 \times 4 = 10.000\text{€}$
Seguruak	650€
Mailegua	300€
GUZTIRA (hilabetero)	22.540€